



OIARTZUNGO
UDALA

M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA
ANDREA, OIARTZUNGO UDAL
AGURGARRIAREN IDAZKARI NAIZENAK

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010eko martxoaren 29an, beste batzuen artean ondorengo Akordioa hartu zuela:

“ETXEKO HONDAKINEN GAIKAKO BILKETARAKO ETXOLEN PROIEKTUAREN ESLEIPEN PROPOSAMENA

“Etxeko hondakinen gaikako bilketarako etxolen proiektua”k Enplegurako eta Toki Iraunkortasunerako Estatuaren Diru Laguntza lortu zuenez, obrak burutu ahal izateko adjudikazio fasea martxan jarri zen.

Horretarako jarritako epean Udal honetan aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren Obrak eta Zerbitzuak Batzordeak egindako diktamena ikusi ondoren, honakoa onartzea erabaki da, aho batez:

Administrazio Orokorreko Teknikariaren eta Udal Arkitekto Teknikoaren txostenak kontutan hartuz, eskaintzak aurkezteko epean enpresek aurkeztutako dokumentazioa aztertuta eta Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 30/2007 Legearen 130. artikuluan zehaztutako baldintzak ziurtatu dituztela ikusita, hurrengo enpresak onartu dira lizitazioan:

- Erreti Eraikuntzak.
- Construcciones Alzola, S.L.
- Amaiur Etxegintza

Aipatu enpresen eskaintzak aztertu ondoren, balorazio irizpideen arabera puntuaketa altuena duen eskaintza Construcciones Alzola, S.L. enpresarena da, 109.717,58 €ko aurrekontuarekin (BEZ barne) eta 2 hilabeteko exekuzio epearekin. Bestalde, 7 langile okupatuko ditu obran eta hauetatik, 4 langabeziatik kontratatuko ditu. Beraz, lanak Construcciones Alzola, S.L. enpresari esleitzea erabaki da.

Esleipen honen izaera behin behinekoa izango da. Beraz, Construcciones Alzola, S.L.ri adierazten zaio, esleipen hau behin behingoa denez, behin-betikoa egin ahal izateko kontratatzailearen profilean argitaratu eta 10 egun baliodunetako epean, administrazio baldintza zehatzen agiriko 20. atalean zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko duela.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikuluen arabera, Alkate Jaunaren agindu eta oniritziarekin batera, Oiarzunen, bi mila eta hamarreko martxoaren hogeita bederatzian.


O.E.
ALKATEAK,

OIARTZUNGO
UDALA

Done Eztebe Plaza 1 - 20180 Oiarzun
943 490 142 - www.oiarzun.org


IDAZKARITZA
OIARTZUNGO
UDALA
